

ERAIKITZEN ARI DIREN ETXEBIZITZAK EROSTEA EDO HORIEK PLANOETAN DAUDELA EROSTEA

Lehen eskuko etxebizitzak ez dira beti eraikuntza-lanak bukatu ondoren salerosten. Sarritan, horiek eraiki bitartean salerosten dira eta, zenbaitetan, oraindik planoetan besterik ez daudela.

Egoera horietakoren batean eginez gero salerosketa, legezko neurri hauek ezarri dira etxebizitzaren erosleak emandako diru-kopurua bermatzeko:

Sustatzaileak aseguru-poliza baten bidez edo banku-abal baten bidez bermatu behar ditu erosleak kontura emandako diru-kopurua gehi urteko % 6ko interesa, eraikuntza-lanak hasten ez badira edo hitzartutako epean amaitzen ez badira. Salerosketan berariaz adierazi behar da baldintza hori betetzen dela. Kontratua izenpetzearekin batera, adierazitako bermea kreditatzen duen agiria eman behar dio saltzaileak erosleari. Eraikuntza-lanak hasteko edo etxebizitza entregatzeko epea agortu eta bata zein bestea burutu ez badira, erosleak bi aukera izango ditu; lehen aukera kontratua deuseztatzea izango da, eta hala eginez gero, aurretik eman duen diru-kopurua gehi urteko %6ko interesa itzuli beharko zaizkio. Bigarren aukera epea luzatzea izango da. Luzapen hori klausula gehigarri gisa erantsiko zaio kontratuari, eta bertan zehaztuko da epe berria. Erosleak aurreratutako diru-kopurua bestelako fondo-motatik aparteko banku-kontu batean jarri behar da. Sustatzaileak etxebizitza eraikitzeak dakartzan gastuei aurre egiteko soilik erabil dezake kontu horretako dirua. Hitzartutako diru-sarrerak zein kontu-zenbakitan sartu behar diren adierazi behar da kontratuan.

Urbanizazio edo eraikuntza proiektuetan aurreikusi gabeko aldaketarik balego eraikuntza-lanetan, eta aldaketa horiek prezioa igotzea balekarte, balizko aldaketen berri eman beharko zaio erosleari, aldaketak egin baino lehenago. Erosleak aldaketekin bat datorrela edo ados ez dagoela adieraz dezake.

Erosleak proposatutako eta saltzailearekin adostutako aldaketak behar bezala jaso beharko dira dokumentuetan, batik bat, horien edukia, prezioa eta entregatzeko epea.